

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2022 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa. Onespena ematea aldatzeari otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri laguntzearen esparruan; bai eta aldatzeari ere abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu kontuei, eragiketei eta finantza-aktiboei buruz nahitaez informatu beharra**

Foru Dekretu honen bidez, alde batetik, otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua aldatzen da, finantza kontuei buruzko informazio aitortpena aurkezteko betebeharrari eusteko, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonak herrialde edo jurisdikzio jakin batzuetako egoiliarak direnean, nahiz eta jakinarazteko informazio zehatzik ez egon, informazio aitortpen hori aurkezteko betebeharra betetzen dela kontrolatu ahal izateko.

Bestalde, aldatu egiten da 111/2008 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko beharra, balore negoziatuen balio nominalari buruz informatzeko betebeharra sartzeko, tributuen kudeaketa hobetze aldera.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Kontsulta Batzordeak horri buruz emandako txostenak aztertu dira.

Horregatik, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Azken paragrafoa eranstean zaio 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluari. Foru dekretu horren bidez, ezartzen da identifikatu beharra finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri laguntzearen esparruan. Hona hemen nola idatzita geratzen den:

“Hala ere, finantza erakundeek nahitaez aurkeztu beharko dute aipatutako informazio aitortpena, nahiz eta, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean jasotako arreta egokiari buruzko arauak aplikatu ondoren, ondorioztatu ez dagoela informazioa jakinarazi beharreko konturik, aipatutako eranskinaren VIII. atalaren D apartatuaren arabera, arestian aipatutako Foru Aginduan ezartzen diren baldintzetan eta moduan”.

Bigarrena. Kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko beharra arautzen duen 111/2008 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 1. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“a) Merkatu antolatuetan negoziatutako entitate juridikoen kapitaleko edo funts propioetako akzio eta partaidetzen titular diren pertsonen edo entitate titularren izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, urte bakoitzeko abenduaren 31n. Halaber, titular diren akzioen eta partaidetzen kopuruari eta motari buruzko informazioa emango da, bai eta haien balio nominalari eta balioari buruzkoa ere, foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera”.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta aplikagarria izango zaie 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurreko urteko informazioari buruz aurkeztu behar diren informazio aitortpenei.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**